

Ikasturte hasierako guraso bilera orokorra

- Haur Eskola -

Orereta-Erreterian, 2025ko urriaren 22an

1. AURKEZPENEA

HH0A	Ainara Jacinto (Irati Garmendia)
HH1A	Nerea Aizkorbe eta Itsaso Laboa
HH1B	Ainhoa Gracia eta Maddi Askasibar

2. hIZAN PROIEKTUA

Badira urte batzuk Orereta Ikastola haur hezkuntzaren inguruan hausnarketa egiten hasi zela eta, horren ondorioz, haur hezkuntzako proiektua berritu egin da Ikastolen Elkarteko markoan oinarrituta. hIZAN HH proiektua pertsonon ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, Ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoek, materialek eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

hIZAN HH proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituen eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezanetatik abiatuta dauden jardura eta ekintza autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira; eta guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

Konfiantza eta segurtasunezko testuinguruan, bertako helduengana hurbiltzeko zein atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzekoa, berdinkideekin harreman aberasgarriak izatekoa eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz. Egiteko eta ekiteko motibazioa eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, horixe da pedagogiaren oinarrian jarri duguna.

Laburbilduz, hIZAN HH proiektua, hezkuntza gaur egungo jendartearen beharretara egokitzeko eta berau hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektua da, zeina egitearen ekinez eraikiko dugun.

3. EBALUAZIOA

HARMONIAN HAZTEN:

Alderdi pertsonal eta sozialean oinarrituta, gorputzaren eta mugimenduaren garapena kontuan hartzea. Norberak dituen pentsamendu eta emozioak ezagutzea, bere ingurune eta besteekin izandako harremanei esker, norbanakoaren kontrola eta norbanakoaren nortasunaren eraikitzea garatuko dute hurrek eremu honetan.

INGURUNEA EZAGUTZEA ETA ESPLORATZEA:

Hurrek, inguruneke osagai fisiko eta naturalak ezagutzea, behatzea eta esploratzea. Jasotako ikaskuntza egoerekin, haurrak ingurunea zaintzea, estimatzea, behatzea, errespetatzea eta babestea lortu nahi da.

KOMUNIKAZIOA ETA ERREALITATEAREN ADIERAZPENA:

Hurrek dituzten bizipenak, sentimenduak... komunikatzen jakitea; baita beste egoeretan komunikazio egokia erabiltzea ere. Komunikazioak bizi garen mundua interpretatzeko eta irudikatzeko aukera ematen duenez, bizitako esperientziak zabalduz, haurren sormenaren garapena handitzea da helburua.

4. EUSKARA

Orereta Ikastolaren sorrera-helburuak euskara eta euskal kulturaren transmisioa eta sustapena dira. Etengabeko jarduerak eta kanpainak aurrera eraman arren, helburua betetzeko zailtasunak agerikoak dira Orereta Ikastolan eta euskararen lurralde osoan. Euskaraz Bizi egitasmoa berrikusi eta ikasleen aitzindaritzaren suspertuz dinamika desberdinak jarri genituen indarrean. Irakasle eta langile guztiok konpromiso argia hartzen dugu euskararen erabileraren alde eragiteko, baita dagozkigun arloetan formazioa hobetzen jarraitzeko ere.

Gurasoen kasuan, ikasleen hizkuntza erabileran familiak duen garrantzia bereziki azpimarratu nahi dugu.

Guraso euskaldunek beren artean euskara erabiliz modurik eraginkorrena dute seme-alabengan ahalik eta hizkuntza erabilera eta gaitasun onena ziurtatzeko. Zaindu hizkuntza bizitzaren esparru guztietan.

Guraso erdaldunek ere, euskararekiko interesa erakutsiz eta seme-alaben arteko euskarazko erabilerak oro har sustatuz (euskarazko komunikabideak, adibidez), seme-alaben euskararen erabileran modu positiboan eragin dezakete. Zer esanik ez euskara ikastera animatzen badira.

5. IKASTURTEAREN ANTOLAKETA

5.1. Eskola ordutegia

Sarrera ordua	• 07:30-09:30 Sarrera malgua • 11:00 Bazkaldu aurretik • 12:30 Bazkaldu ondoren
Irteera ordua	• 11:30 Bazkaldu gabe • 13:00-13:15 Bazkaldu ondoren • 14:30-15:30 Siestaren ondoren • 16:15-17:00 Askariaren ondoren

Ikastolara gogoz eta lasai etortzeko, aproposena eguneroko errutinei eta harremanei giro eta denbora egokia eskaintzea da: esnatzeko, gosaltzeko, janzteko eta garbitzeko denbora... Goizeko ordutegi malguak hori guztia ahalbidetzea du helburu.

Sarrerak gurasoekin edo arduradunekin egingo dira horretarako prestatutako espazioan. Beraiekin berokia eta zapatak erantzi eta, gelako atean, agurtzeko aukera izango dute.

Ordutegiak errespetatu behar dira. Edozein arrazoiengatik beranduago etorri behar baduzue edota haurra goizago jaso, aurretik egunerokoaren, Inikaren edo dei baten bitartez abisatu behar diguzue. Zuen ohiko ordutegia aldatu nahi izanez gero, 15 egun lehenago hezitzaileari adierazi eta bulegotik pasa beharko da ordutegi berria adierazteko. 15 egunetako tarte horretan, erantzun bat jasoko duzue.

5.2. Kontaktua

Tutorearekin telefonoz harremanetan jartzeko, aurretik hitzordua adostea komenigarria da. Deitzeko ordu egokiena: 07:30 - 09:30 (Tel.: 943 52 03 97 | Luzapena: 246)

5.3. Bilerak

- Orokorrak: ikasturte hasieran eta bukaeran.
- Bakarkakoak: ekainean eta beharra dagoen aldiro.

5.4. Altxorraren otarra (HH0)

Altxorraren otarra, 6-12 hilabeteko haurrei (eserita mantentzeko gai direnetik aurrera) zuzendutako esplorazio jokoa da. Lurrean eguneroko objektuz betetako saski bat jartzen da; material naturalekin ahal bada, horrela, ukimena, dastamena, usaimena, ikusmena, entzumena eta gorputzaren mugimendua aurkitu eta garatzeko.

Esploraziorako, kontzentraziorako eta arreta mantentzeko jarduerak dira. Haurrari objektuak sentzorialki esploratzeko eta inguruan aurki ditzakeen objektuekiko interesa pizteko aukera ematen du Altxorraren otarrak.

HELBURUAK

- Esplorazio jokoaren gaitasuna piztea eta garatzea
- Objektuak aurkitzea sustatzea
- Haurraren autonomia bultzatzea, bere gisara egiten duten esplorazio jokoa da
- Kontzentrazio maila eta jakin-mina piztea
- Begi, esku eta aho koordinazioaren garapena bermatzea
- Inguruko objektuen ezagutza ahalbidetzea
- Zentzumenak aktibatzea

IRAKASLEAREN ESKU-HARTZEA

Altxorraren otarrean, helduaren funtzioa haurrari ziurtasuna ematea da, bere presentzian arreta ipiniz. Oso garrantzitsua da hezitzaileak ematen duen laguntza emozionala, beraien presentziarekin haurrari jolasten eta ikasten laguntzen dioten konfiantza sortzen baitute.

Helduaren presentziak ziurtasuna ematen du eta kontzentrazioa errazten du. Hezitzaileak haurrarekin begiradak elkar trukatu behar ditu. Begirada bat edo irribarre bat nahikoa da kontaktua pizteko. Hezitzailearen jarrera eta interesak haurrak motibatzeke baliagarria izan behar du; aske sentitu daitezen aurkikuntzak eginez gozatzeko.

Garrantzitsua da beraien erritmoa errespetatzea eta behar duten denbora guztia erabiltzea otarraren itxurara ohitzeko, objektuak hartzen eta esploratzen hasi baino lehen. Beraien aukerak egiteko askatasuna behar dute. Batzuetan haur batek 40 minutu pasa ditzake objektu jakin batekin, otarrean dauden gainontzeko objektuei kasurik egin gabe. Beste batzuetan, haurrak bere jarrerarekin adieraziko du argitasunez ez duela jolas honetan aritu nahi, eta hori ere errespetatu behar da.

Heldua haurrarendik hurbil eseri beharko da, hitz egin eta esku-hartu gabe; noski, haurrak arreta eta kasu egitea nahi duen kasuetan, hitz egin edota esku-hartuko du irakasleak.

Hezitzaileak espazioa antolatzen jakin behar du haurren garapena kontuan hartuz, esaterako: ikasturte erdian batzuk desplazatzen hasiko dira, otarrarekiko interesa gutxitzen delarik, inguruko beste objektu batzuk bilatuz... Haurren beharrian berriak eta haur batzuen eta besteen arteko interferentziarik egon ez dadin, haur nagusiagoak inguruan baldin badaude, ziurtasun gune bat sortu beharko du irakasleak gelako txoko batean.

5.5. Jolas heuristikoa (HH1)

Jolas heuristikoa, 0-3ko eskolan garatzen da, 12 hilabetetik 20-24 hilabetetara, hain zuzen ere. Talde txikian egiteko jolasa da. Haurren bat-bateko ekintzak erabiltzen dira

jolasean. Era berean, pentsamendua, hizkuntza, erlazio pertsonalak eta haurren ekintzak egituratzen laguntzen du. Bi fase ditu: lehendabizikoan, haurrek materiala aztertzen dute eta objektu batzuk besteekin konbinatzen dituzte. Bigarrenean aldiz, hezitzaileak gidaturik eta era antolatuan, haurrek materiala jasotzen dute. Hala eta guztiz ere, aipatu behar da jolas heuristikoa ez dituela normalean eskolan egiten diren gainontzeko ekintzak alde batera uzten.

MATERIALA

Hiru material mota daude, objektuak, edukiontziak eta poltsak. Erabilera ludiko jakina ez duten objektuak erabiltzen dira, baina elkarren artean konbinatzeko errazak direnak: naturatik jasotakoak, etxean, dendetan... bilatutakoak, jokoarentzat bereziki eginak edo erositakoak. Zenbat eta aukera zabalagoa izan, orduan eta konbinazio handiagoak eskainiko dira.

Ondoren, objektuen adibide batzuk adierazten dira: Edukiontziak barruan edozein gauza gordetzeko prestatuak egon behar dira: edukiera sakona, gogorrak eta haurrek erraz erabiltzeko prestatuak.

Poltsak zabalak izango dira haurrek bertan zein material gorde behar den ikusteko. Bi funtzio nagusi izango dituzte:

- Jolas materialak txukun gordeta izateko.
- Jokoak irauten duen bitartean, materialak jasotzeko.

SAIO BATEN GARAPENA

Saio bakoitzaren hasieran, irakasleak jokia garatuko den gela prestatuko du; erabiliko ez den material guztia jaso eta jolas heuristikoan beharrezko izango den espazioa sortuko du. Hiru edo lau objektu mota aukeratuko ditu. Poltsetatik objektu mota bakoitzeko unitateak atera eta edukiontziak prestatuko ditu. Gelako lurrian, distantzia berdinerara dauden bost puntu ezberdinetan edukiontziak jarriko ditu. Beste tokietan aukeratutako objektuak utziko ditu eta poltsak jaso egingo ditu.

Hezitzaileak haurren garapenaren kontrola eraman behar du, hori behaketaren eta oharren laguntzaz egingo du. Lasaitasunez behatu behar dugu haurren ekintza eta honen bidez taldearen ikuspegi globalaren ideia aterako dugu. Hezitzaileak gelako aulki batean eseriko dira; aulki hori estrategikoki kokatua egongo da gelako ikuspegi osoa izateko eta haurrek ere begiralea ikusteko arazorik ez izateko. Hezitzaileak beharrezkoa den kasuetan bakarrik mugituko dira, haurren ekintza ez oztopatzeke.

Behatzailearen rola hartuko dute hezitzaileek (haurrak konturatu gabe, noski) eta segurtasuna emango diete hurrei beren presentziarekin soilik.

Hezitzaileak zer behatu behar duen jakin behar du, horregatik puntu edo irizpide batzuk kontuan izan behar ditu.

Haurrak askatasun osoz ariko dira objektuekin jardunean, aztertzen eta norbera bere modura konbinatzen. Hauek dira gerta daitezkeen ekintza batzuk: ireki-itxi, sartu-atera, gehitu, pilatu, jaurti, banatu, kolpatu, itsatsi, bira emanarazi, ontziari dagokion tapa aurkitu, edukiontzi batetik bestera materiala sartu, dorreak egin eta bota, beste haurren parte hartzea onartu...

Bigarren zatian, objektuak jasotzen dira. Haurrek lurrean dauden objektuak hartu eta bakoitza dagokion poltsan sartuko dute irakaslearen laguntzaz. Atal honetan, helduen lana da haurren zereginaren nondik norakoa bideratzea. Haurren mugikortasuna landuko da, objektu gehienetarako toki batetik bestera joan beharko baita. Pentsamendua egituratzen lagunduko die objektu bakoitza dagokion poltsan sartzeko azken horiek sailkatzen dituztenean. Hasierako zatian ez bezala, oraingoan hezitzailearen hitzek haurren ekintzak zuzenduko dituzte.

Familiaren laguntza eta inplikazioa ere garrantzitsua dela azpimarratu behar dugu, bai materiala lortzeko garaian, baita ideia berriak emateko garaian ere. Hezitzaileok gonbidapena luzatuko genizueke.

Saio hauek astean behin egingo ditugu eta 20-30 minutuko iraupena izango dute. Iraupena malgua izango da, haurren jarreraren arabera. Haurrak aspertzen hasten badira edota interesa galdu dutela jabetu bagara, saioa bukatutzat emango dugu. Gustura ari badira, aldiz, pixka bat luzatu daiteke, baina jasotzeko orduan ere gustura arituko direla ziurtatuz.

Materialaren inguruan zenbait ohar: hurrei eskaintzen dizkiegun materialak funtsezko garrantzia dute. Hau da, kontutan izan behar dugu zein material eskaintzen diegun, haiek egokiak diren, kopuruak nahikoa diren, ditugun helburuak lortzeko balio duten...

Manipulatzeaz aspertzen direnean, soluziorik onena materiala aldatzea da, interes berriak piztea, esperientzia berriak eskaintzea... Gerta daiteke, baita ere, haur batzuek material mota bategatik erakarpenik ez sentitzea (testura edo ukipenagatik, itxuragatik...)

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da jolasa noiz amaitu behar den jakitea.

Haurrak ez dira sekulan jolas honetan aritzera behartu behar, beraz, taldea oso motibatuta ez dagoenean, bigarren fasera pasatzea komenigarria da, hau da, material bakoitza bere zakuan jasotzera.

5.6. Pikler labirintoa (HH0-HH1)

Ingurune, espazio eta materialen prestakuntza eta plangintzari dagokionez, labirintoa, Piklerren proposamenaren barruan, zalantzarik gabe, materialik adierazgarriena da.

Esperientzia eta aukera zabalak eskaintzen dituen material bikaina da, bai arlo motorrean, baita elkarrekintzan ere:

- Garbi bereizten ditu barrua eta kanpoa.
- Aurrealde opaku eta gardenez (hutsik edo barrekin) osatuta egonik, esperientzia desberdin asko izateko aukera ematen dio haurrari: argitasun handiagoa, txikiagoa; ikusmen zabalagoa, mugatuagoa (tunel txikiak).
- Arrastan eta biraka ibiltzen diren haurrek erabili dezakete estruktura hau. Katamarka zutik jartzen direnek eta euskarri baten laguntzaz mugitzen direnek baita ere. Zutikako posizioa eta ibilera menderatzen dutenek estruktura hauekin asko gozatzen dute.
- Aurrealde gardenek (hutsik edo barrekin) estruktura barruan eta kanpoan dauden umeen arteko giza-elkarrekintza bultzatzen dute: ikusmenaz baliatuz, objektuak elkar trukatzuz eta oparitzuz.
- Hainbat tokitan sabairik ez izateak, estruktura barruan zutik jartzeko aukera ematen die.
- Barrak dauden guneetan eta horiek baliatuz, zutik jartzeko, lurrera bueltatzeko edo esertzeko aukera dute.
- Estrukturaren altuerak euskarri batez baliatuz zutik mugitzeko aukera ematen dio nahi edo behar duenari.
- ...

Umeek bakarrik ikasten dute eserita egoten eta ibiltzen, helduak erakutsi gabe eta haurra posizio desberdinetara bakarrik iristen denean, era autonomoan, segurtasun handiagoarekin eta trebetasun handiagoarekin egiten duela ikusi da. Heldu batek laguntzen dionean, aitzitik, oraindik mugimendu horiek egiteko prest ez dagoelako istripuak izatea errazagoa izan ohi da.

Haurra libre sentitzean, positiboago, aktiboago eta interesatuago azaltzen da. Haurrak errespetatua eta maitatua baino ez du sentitu behar, baita bere lorpenengatik aitortua izatea ere, haurrek hobetzeko joera izan dezaten.

5.7. Psikomotrizitate saioak

Ostiraletan izango dira.

Saio horien helburua gorputz mugimenduaren koordinazioa garatzea eta mugimenduaren bidez bere bizipenak adieraztea izango da.

Gomendagarria da haurrak jantzi eta oinetako erosoekin etortzea. Honen helburua autonomiaren garapenarekin bat dator.

6. ORERETA IKASTOLAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUA

- HH-LH: Maddalen Iriondo
- DBH: Ane Igarzabal (Goizargi Iglesiasen ordezkoa)
- Batx.: Ainhoa Gaztelumendi

PEDAGOGIA TERAPEUTIKOKO ESPEZIALITATEA DUTEN IRAKASLEAK

- HH-LH:
 - Ainhoa Gaztelumendi eta Ander Aguilera (Idoia Oiartzabalen ordezkok)
 - Ane Beltran
 - Maialen Gurrutxaga
- DBH: Amaia Olaso

HEZIKETA LAGUNTZAILE ESPEZIALISTAK

- HH: Ani Bengoetxea
- HH: Maite Intziarte
- HH-LH: Aitor Franco
- LH: Oihana Latasa
- DBH-HH: Uxue Louvelli

ORIENTAZIO DEPARTAMENTUAREN HELBURUAK

Orientazioa etengabeko laguntza prozesua da eta helburu du ikasleei oinarritzko kompetentziak eskuratzen eta bere proiektu pertsonala garatzen laguntzea.


Hau dela-eta, Orereta Ikastolako orientazio departamentuaren eginkizun nagusia hezkuntza orientazioa sustatzea da, curriculum osoan eta ikasle guztiekin. Departamentu honen jarduna bi prozesuetan gauzatzen da, gehien bat:

Tutoretza eta orientazioa

Tutoretza eta orientazioa jarduera multzo bat da, gela barruan zein kanpoan landuko dena, eta ikasleei beren garapenean lagunduko diena, hain zuzen ere: bere burua ezagutzen eta onartzen (garapen pertsonala), sozializazio prozesua hobetzen (garapen soziala), ikasketak aurrera eramaten (ikaskuntza prozesuak) eta etorkizunerako erabakiak hartzen (lanbide orientazioa).

Aniztasunari erantzuna

Ikasleen behar desberdinei erantzun ahal izateko egon daitezkeen neurri eta programa multzoa da, oinarritzko kompetentziak ahalik eta gehien garatzen laguntzeko.



7. GURASO BATZORDEA

ZER DA GURASO BATZORDEA?

Familien ikuspuntua eta iradokizunak helarazteko Ikastolak duen organoa da, seme-alaben hezkuntza prozesu guztian zehar parte hartzeko aukera ematen duena.

Ikastolako partaide eta profesionalekin komunikazio **zuzena** eta **azkarra** izateko (zuzendaritza, zerbitzuak, irakasleak, beste gurasoak...). **EZ** du komunikazio ofiziala ordezkutzen.

NORK OSATZEN DUTE?

HH etapako ikasleen gurasoek.

- Gela bakoitzean gutxienez ordezkari bat.
- Guraso taldea sortzen bada, HOBE. Bileretara txandaka joatea eta informazioa zabaltzea errazten du eta. Ordezkari bat baino gehiago dauden geletan elkarlana erraztu egiten da.
- OSO GARRANTZITSUA da gela bakoitzak guraso ordezkariak izatea.

ZENBATERO IZATEN DIRA BILERAK?

Hilabetean behin, 17:30ean Linoko egoitzan.

- Normalean, hilabeteko 3. astelehenean izaten da.
- Bi helburu:
 - Ikastolatik datorren informazioa jasotzea (Artezkarietatik eta Hezkuntza Batzordetik)
 - Gurasoen eskaera eta iradokizunak Ikastolara helaraztea.

GAIK

- Eguneroko kezken bideratzea
- Ordutegiak eta egutegia adostea

- Ikastolak antolatzen dituen jaialdi eta festa egunetarako familien inplikazioa sustatzea
- Ikastolaren proiektuen jarraipena (pedagogia berria, baso-eskola...) egitea eta proposatzen diren ekintzez hausnartzea.

8. ERANSKINAK

8.1. Urtebetetzeak

Ikasleek beren urtebetetze egunean lagunei banatzeko zerbait ekartzekotan, guztiok elkarrekin jateko moduko zerbait izango da: bizkotxoa, patata-tortila edota antzekoren bat. Horrela, egun horretako hamaiketakoa urtebetetzea ospatzen duenak ekarritakoarekin beteko genuke.

Proposamena hori izateko arrazoi ezberdinak ditugu:

- Ikasleen osasuna: litxarrerria ugari jatea ez baita komeni.
- Bereizkeriak baztertzea: gelan guztiok gure urtebetetzea era berean ospatzea bermatzea.
- Jarrera kontsumistak baztertzea: ospakizunari garrantzia emanez eta ez ikasleak ekartzen duenari.
- Hondakin gutxiago sortzea: proposatzen ditugun bideek oso zabor gutxi sortzen dute.

Hau guztia dela eta, hemendik aurrera, zuen seme-alaben urtebetetzeak proposatutako moduan ospatuko ditugulakoan, gozokirik ez ekartzeko eskatuko dizuegu. Guztion onerako dela uste dugu.

8.2. Gaixotasunak

Haurra gaixorik dagoenean, arreta eta baldintza bereziak behar ditu; Ikastolak eskaintzen ez dituen arreta eta baldintzak, alegia. Gaixoaldian Ikastolara etortzeak, beste haurrak kutsatzeko arriskuaz gain, bakoitzaren sendatze prozesua atzeratzen du.

Ikastola infekzio-fokua izan ez dadin, haurrak ez dira Ikastolara ekarri behar ondorengo sintomak izanez gero:

- Goizean ondoeza, mina edo sukarra.
- Beherakoa.
- Oka egitea, ezohiko moduan.
- Eritasun eta gaixotasun kutsakorrak (konjuntibitisa, eskarlatina, onddoak, barizela, inpetigoa...).
- Eztarriko edo belarriko infekzioa.
- Antibiotikoekin tratamenduan daudenean, eta 24 ordu pasa ez direnean tratamenduarekin hasi zirenetik.

Haurrak, gutxienez, 24 ordu pasa behar ditu sukarrik gabe Ikastolara itzuli aurretik.

Haurrak botika edo substantziaren bati alergia izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ikastolari.

Gurasoek botikak Ikastolako ordutegitik kanpo ematen saiatu behar dute. Ikastolan eman behar izanez gero, ordutegia eta dosia zehazten dituen pediateraren txostena eskatuko da.

Haurrak ohikoa ez den zerbait duenean, familiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote Ikastolari.

Era berean, haurren bat Ikastolan ondo ezik balego, berehala jakinaraziko zaie gurasoei edo premiazko kasuetarako adierazitako pertsonari, Ikastolara jasotzera etor daitezten.

8.3. Zorriak



Eskola garaia iristearekin batera haurren artean zorri infekzioak berragertu ohi dira, kasurik gehienetan hurrek higie-neurri egokia izan arren. Zorriak bere ostalariaren erabateko dependentzia du, bai elikatzeko, bai bizitzeko. Erraztasun handia dute pertsona batengandik beste batengana pasatzeko, ukipen txiki-ena aski izan daiteke. Zorri edo bartzek kutsaturiko arropa, orrazi, kapela edo edozein objektu erabiltzea aski izan daiteke kutsatzeko.

Garai batean zorri kutsadura higie-ne eskaseko biztanleriaren artean sortzen bazen ere, zorriek nahiago dute azal garbian bizi, eta ondorioz, arrunta da higie-ne neurri egokiak dituztenek ere zorriak izatea.

Ongi garbituriko buruetan nekez agertu ohi dira gorputz-zorriak. Ohikoena burukoak dira, eta bereziki 6-10 urte bitarteko haurretan azaltzen dira.

Nagusiki, gizakiok izan ohi ditugun zorriak bi dira: gorputzekoak eta burukoak. Burukoak gehienetan atzealdean agertzen dira, eta nahiago dituzte luzera ertaineko ileak, ez luzeak ez motzak. Gorputzekoak, berriz, torax edota besapeko ile artean ibiltzen dira, baita arropa ehunen zuntz artean ere.

Zorriak ziztatzean injektatutako txistuak azaleko hipersentiberatasuna sortzen du; ondorioz, handitu egiten da eta azkura eragiten du. Azkura dela eta, hazka egiten dugu eta gehiago handitzen da, eta, beraz, bakterio infekzioak errazten ditu. Negal, zarakar edota zorne-jarioa ere ager daitezke.

Badira zenbait gai zorriak akabatzeko egokiak. Ez dira kosmetikoak, benetako bioazidoak baizik, eta arrazoi horregatik erabilera arauak zorrotz errespetatu behar dira. Tratamendua egin ondoren bartz eta hildako zorriak kontu handiz kendu behar dira, honetarako bereziak diren hortz estudun orraziak erabiliz.

Kutsatuta dagoen inguruko buruak ere miatu behar dira: ikaskideak, senideak... Ikastolari horren berri ematea ezinbestekoa da. Arropak ur berotan garbitu behar dira

eta, aukera izanda, lehortu ere bai. Orrazi eta gainerako tresnak ordu-erdiz beratzen eduki behar dira intsektizida disoluziotan.